



18/12/19

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak zuzenketa-eske parzial bi onetsi ditu 2019ko Bizkaiko Aurrekontuen eztabaidaren bigarren jardunaldian

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak Batzarretako taldeek Lurralde historikoko 2019ko Aurrekontu Proiektuaren aurrean aurkeztu dituen zuzenketa-eskeen gaineko bigarren eztabaida jardunaldia jaso dau gaur. Hiru saiotan, aurton aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa-eske guztien ia erdia eztabaidatu eta bozkatu dira: aurkeztu diran 676etatik ia 304. Holan egon dira bananduta: Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen saila (108 zuzenketa-eske); Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun saila (95 zuzenketa-eske); eta Iraunkortasun eta Baliabide Natural saila (101 zuzenketa-eske).

Azkenean, hiru sailen artean, zuzenketa-eske parzial bi onetsi dira. Atzo gertau zan moduan, oposizinoko taldeek onetsi ez diran euren zuzenketa-eske parzial guztiak, seguruenez datorren astean egingo dan Bizkaiko Batzar Nagusien Osokorako gordeko ditue.

Bigarren jardunaldia Imanol Pradales Foru Diputatuak zuzendutako sailagaz hasi da. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek osatutako gehiengoak, arauzko eta prozedurazko ikuspuntutik “egokiagoa” zala eretxita, Automotive Intelligence Center (AIC) Fundazioak eskatutako milioi bat euroko diru-laguntzea, kontsignazino izendun moduan tramitetera zuzendutako zuzenketa-eske parzial bat atera dabe aurrera,

ENPLEGU, GIZARTERATZE ETA BERDINTASUN SAILA

Bigarren saioan, Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Batzordeak, aurkeztu diran 101 zuzenketa-eskeak eztabaidatu ostean, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Mistoak adostutako zuzenketa-eske transakzional bakarra onetsi dau.

Aldaketa proposamen horrek 50.000 euro gehiago aurreikusten ditu emakumeen egoitzetako egotaldietara zuzendutako laguntzak indartzeko.

IRAUNKORTASUN ETA BALIABIDE NATURAL SAILA

Momentuz, aldaketarik izango ez dauen aurrekontua Elena Unzueta buru dan sailarena izango da. Batzordeak ez ditu onetsi Batzarretako oposizinoko taldeek Iraunkortasun eta Baliabide Natural sailaren aurrekontuaren aurrean aurkeztu dituen 101 zuzenketa-eske parzialak.

BIHAR, AZKENENGO JARDUNALDIA

Zuzenketa-eske parzialak eztabaidatzeko saioak bihar amaituko dira. Saio bitan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak Herri Administrazio eta Erakunde Harreman saileko eta Ogasun eta Finantza saileko aurrekontuen aurrean aurkeztutako zuzenketa landuko ditu.

NOTA DE PRENSA

19/12/18

La Comisión de Economía y Hacienda aprueba dos enmiendas parciales en su segunda jornada de debate de presupuestos para 2019

La Comisión de Economía y Hacienda ha celebrado hoy su segunda jornada de debate de enmiendas parciales al Proyecto de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para 2019. A lo largo de tres sesiones los grupos junteros han debatido y votado casi la mitad de las enmiendas presentadas este año a los presupuestos: un total de 304 de las 676 presentadas. Estas han estado divididas de la siguiente forma: Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (108 enmiendas); Departamento de Empleo, Inserción Social e Inclusión (95 enmiendas); y Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural (101 enmiendas).

Finalmente, entre las tres áreas, han sido aprobadas dos enmiendas parciales. Tal y como sucedió ayer, los grupos junteros de la oposición han optado por reservar todas sus enmiendas rechazadas para el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia que tendrá lugar, previsiblemente, la semana que viene.

Esta segunda jornada ha dado comienzo con el área dirigida por el Diputado Foral Imanol Pradales. La mayoría formada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sacado adelante una enmienda parcial dirigida a tramitar la ayuda de un millón de euros solicitada por la Fundación Automotive Intelligence Center (AIC) como consignación nominativa, al entenderlo “más adecuado” desde el punto de vista normativo y procedimental.

EMPLEO, INSERCIÓN SOCIAL E IGUALDAD

En una segunda sesión, la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales ha aprobado, tras debatir 95 enmiendas parciales, una enmienda transaccional acordada entre el grupo Nacionalistas Vascos, el grupo Socialistas Vascos y el Grupo Mixto.

Dicha propuesta de modificación plantea un implemento de 50.000 euros para el refuerzo ayudas dirigidas a estancias en centros de mujer.

SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

De momento, el presupuesto que no variará será el del área que dirige Elena Unzueta. La comisión ha rechazado las 101 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros de la oposición al área de Sostenibilidad y Medio Natural.

MAÑANA, ÚLTIMA JORNADA

Las sesiones de debate de las enmiendas parciales finalizarán mañana. A lo largo de dos sesiones, la Comisión de Economía y Hacienda tratará las correcciones a los textos presupuestarios de Administración Pública y Relaciones Institucionales, y Hacienda y Finanzas.